

Noaua !!



Nekazal produktuen egun handia, hilaren 13an

Infernutik
Soto del Realeko espetxera

IGELTSERITZA

URDANTZI

Mugikorra: 649 435475
649 435476
Telf: 943 363370 - 943 361439

ERRAZKIN IGELTSERITZA

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
☎ 629 420565 - 649 435470

urki-mitxe@euskalnet.net

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatu berritzea  Fatxadun konponketa
Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83
Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE

ARANZAZISTROKI

Igeltseritza eta pin-
Juan Jose enea, 6
Kalezar
943 36 05 50 - 606 37

AROTEGIAK

BEREZIARTUA

Egurra eta egur-
ra-aluminioa
LEIHOAK

Aginaga Telf: 943 37 15 71

JOSE RAMON

Neurriko altzariak eta sukaldeak
Errotaberri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 -
Faxa: 943 36 69 45

JOSE MARI IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12


USURBILGO OFIZIOAK

ZURE ESKURA DITUZU

ITURGINTZA

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

JAVIER ORBEGOZO

Iturgintza
Gasa



Berokuntza



Marketa-kalea, 1, 1. erd. ☎ Telf: 943 36 39 47 ☎ 943 36 39 48 ☎ Moba: 609 603 288

JOSEBA ARANGU-

☎ 943 83 00 72

IÑAKI LATAILLADE

Iturgintza, gas eta
berogintza

Mobila: 609 888021

ELEKTRIZITATEA

MIKEL IZAGI-

Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

ESKAIOLAK

EUGENIO NORIEGA

Erdiko kalea, 12
Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

JOSE ANTONIO ELORZA

Galtzaragaina 2-2B
Telf 943 37 34 70

PINTURAK

RAMON BARCENI-

- . Pikor pintura eta gotele lanak
- . Paperezkatze- lanak
- . Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

FERNANDO PINTURAK

Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

Gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu
943 360321 telefo-

Txirrikitutik



Tomas Fernandez Alvarez, 1960.10.02, Aginaga. Udal fototeka

Noaua!!

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Argazki-press-ekoek eginikoa da azaleko argazkia

Pasa den astebukaeran, San Praixkuak aitzaki hartuta, Aginagan ibili naiz jai usainean; egia esan, ez dut festa handirik ospatu. Jokin eta Oihanaren atxilotetek eragindako samina nagusitu zitzaidan niri ere. Aginagako Ariztitxo frontoi berria ikusteko aukera izan dut behintzat. Ez dago erabat bukatuta baina uste baino itxura hobea hartu diot. Hilabete batzuk barru aginagatarrak ez dute pilotan ez aritzeko aitzakia izanen.

Honen aurretik ordea, Aginagako frontoia beste bat izan da: eliza zaharren albo batean, erretore etxearen aurrean dagoen frontoi txikia. Aste honetako argazkia, Tomas Fernandezek 1960ko San Praixkutan bertan ateratakoa da hain zuzen. Ikus daitekeenez, bertan jokatzeko ari ziren pilota partida etenda dago Don Antonio apaizak angelusa errezatzen duen bitartean. Albo batean eskuak atzean dituela pilotaria, erdian apaiza eta hauei begira aginagatar mordoa. Tartean berriz, beti bezala baina gaur egun ibiltzen direnak ez bezala nabarmen, guardia zibil bat.

Jendearen atzean erretore etxea eta Etxe-alaiko teilatua ageri dira. Frontoiaren ezker pareta berriz zuru-zuri dago. Zenbat partida jokatu ote dira bertan?

ZALOA ARNAIZ

fototeka_usurbil@euskalerrria.org

Aurkibidea

HERORREK ESAN

4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN

6. ORR.

KONTZEJU TXIKIA

10. ORR.

Bigarren seme-alaba izateagatik dirulaguntza jasotzeko eskubidea

ATXILOTUTAKOEN ESPETXERATZEA

12. ORR.

NEKAZAL PRODUKTUEN EGUNA

14. ORR.

KENPO KAY IKASTAROA

16. ORR.

PAILAZOAK NOAUA! TXIKIN

18. ORR.

MAJERAKO KONDARRAK

19. ORR.

EGUN HAUETARAKO DEIALDIAK

22. ORR.



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrerak



OLATZ ALTUNA

Zuek zaituztet gogoan

Egun batzuk pasa dira zuen atxiloketaren berri izan genuenetik, eta behin eta berriz datorkit gogora zuen irudia, ezin zaituztet burutik kendu. Noaua!!ko atal berri honetan idaztea egokitu zait, eta egun hauetan herria kolpatu duen gertaerari heldu diot, ezinbestean.

Zuen atxiloketa dela-eta kontuan hartzekoa iruditu zait usurbildarron erantzuna. Asko ginen egunean bertan zuen etxe aurrera hurbildu ginenok, zuen berri jakin nahian eta nolabait gure elkartasuna adierazi nahian. Horretarako aukera handirik ez izan arren, nahi hori adierazten zuten bertan botatako oihuek. Poliziez inguratuta ekarri zintuzteten eta hiru ordu beranduago berdin eramane. Etxe ataritik kotxera bitarteko bost metroko bidean ikusi zintuztegun, eta irudi hori dut buruan iltzatua. Gerora jakin

dut basatiki torturatuak izan zaretela.

Herriak hori salatu du, bai kalean manifestazioen bidez, bai udalean plenoan aurkezturiko mozioan. Baina, herritarren atsekabea ez da udaleko ordezkari politiko guztiengan nabaritu. EA abstenitu egin zen eta PNV ez zen aurkeztu ere egin. Lotsagarria!

Zuek zaituztet gogoan, zuek eta espetxeratuta edota ihes eginda dauzken zuek bezalako gazte guztiak (aurten, ekaina bitartean, eta polizia iturrien arabera, 300 bat gazte egin omen dute ospa beren etxeetatik arrazoi politikoak direla eta). Belaunaldiz belaunaldi gertatzen ari den tragedia da, eta herri batek ezin du horrelakorik amestitu. Ez naiz gazte horien motibazio politikoak baloratzen hasiko, ez dagokit eta. Baina errealitate horrek eman behar liguke zer pentsa guztioi. Sinpleegia da gazte horiek burugabeak direla esatea. Harrokeria handia da,

gainera, horiek denak oker dabiltzala baieztatzea. Jarrera horrek ez garamatzela inora.

Eta galdetzen diot neure buruari: akaso posible al da gaur egun praktika politiko independentista eta aurrerakoia askatasunez egitea?

Ezetz esango nuke. Beraz, edo egoera politikoa errotik aldarazteko bidea hartzen dugu, edo bestela irteerarik gabeko gurgil zoroan ibiliko gara, tragediaz tragedia. Eta halaxe, gurasoengandik seme-alabengana pasatzen ari da torturaren eta kartzelaren lekuko lazarria. Zuek zaituztet gogoan, Oihana eta Jokin, eta esan nahi dizuet usurbildar asko prest dagoela egoera politikoa errotik aldarazteko. Horren testigu izan dira egunotan Usurbilgo kaleak. Plenoan abstenitu zirenak edo agertu ere egin ez zirenak zer egiteko prest ote daude?

Ilka Mika



Jokin eta Oihana, beti izango gaituzue zuen ondoan

Pasa den irailaren 30eko atxiloketen eta ordutik hona herria jasaten ari den okupazio politzialaren aurrean Usurbilgo Gazte Asanblada bere hausnarketa argitara eman beharrean aurkitu da.

Guztiok aski ezagunak ditugu Jokin eta Oihana, eta gurean ere beti izan ditugu adiskide, lankide eta eztabaidalagun modura. Onean eta txarrean gure ondoan egoten saiatu diren bi bidaialagun izan dira, eta ziur honela jarraituko

ko dutela!

Oihana eta Jokinek indar errepresiboen eskuetan jasango duten tratuekiko gure kezka azaldu nahi dugu, orain arte bezala beste hainbat euskal herritarren modura torturatuak izan baitira.

Inpunitate egoera honen aurrean Usurbilgo herriari, bi herritar hauen eskubideak bermatze bidean pausoak eman ditzan eskatu nahi diogu.

Amaitzeko Jokin zein Oihanaren

senideei eta lagun ugariei besarkadarik sentituena eta eurekin dugun elkartasuna helarazi nahi diegu gure txoko hone-tatik. Bi lagun hauei berriz, laster gure kaleetan barna ikusiko ditugunaren itxaropenaz, guk lanean jarraituko dugula esan eta goiari eusteko. EUTSI GOIARI JOKIN!! EUTSI GOIARI OIHANA!! Beti izango gaituzue zuen ondoan eta zuengatik borrokatzeko prest! Atxilotuak askatu!!!!

UGA, Usurbilgo Gazte Asanblada

Zer diyo? !!

Ernio mendiko gorabeherak

Aspaldiko urte artan Erniora joateko koadrilla bat osatu giñan Igeldon, neska eta mutil, ni eta beste batzuk lenengo aldia gendun baño baziran tartean lan oietan ortzak ondo berdinduak, eta oiek eman zizkiguten oituren berri.

Neskak gauean biderako txokolatea eta gosaria, mutillak bazkaria eta beste gastuak ordaindu.

Irailleko lenengo igandean joatea zan garai artako oitura, larunbatean oi zan bezela seirak arte lana egin, eta ondorenean tallerra garbitu, makinak garbitu ta oliotu ta abar, beste ordu pare bat gazteentzako propina izate gendun.

Ettxera joan apaldu eta Igeldon elkartu giñan, soñujozalea Joxe Luix bidea alaitzeko, ta or goaz Orio aldera.

Arruti G.B. dantzan ere etzan makala, ta dantza ta bire, Bentatik Andu tarte ortan alpargatak puskatuta aurkitu zan, besteak bezela ark ere bazuen pare berria Erniora iritsitakuan jazteko, baño kankak dion bezela Ernion gelditu nitzan oñeko miñez izango zan bildurra segituan jantzita, ta Oriora iritxi zan erdi oiñutsik. Oriora iritxi ta tabernak itxita, alaere etzuen etsi, Salsamendi neko aurrian orduerdi inguru itxoin genion txokolatia janez, ta alpargata berrien jabe egin zan gure Manuel.

Aiara iritxi giñanian tabernak irikita zeuden, pixkabat indar berritu ta Iturriotzera, egun txintan abiatu giñan betik gora, Zelatun ingurutik asita laño itxita zegoen, baño aizea geldi ta etzuan bustitzen pixkabat ezkotu bakarrik, gurutze zarrera iritxi zinta batzuk erosi ta kalbarioak erreztatuz iritxi giñan puntara. Gaiñean eguzkia zegoen une artan, alpargata berriak jantzi ta gosaltzen asi giñan astoa paotxetan bezin pozik, baño askotan bezela poza motxan izan gendun, aize otza indatu zan lañoa bustitzen asi ta etzan giro, otza eta bustia banaka ere ez dira onak, elkartuezkero berriz oso ganadu txarrak mendi puntarako.

Uso demonio jetxi giñan Zelatuna, gaur ainbesteko aukerarik erroparekin etzan eta arin xamar joan ziranak, kaz, kaz, kaz, ortz agiñakin kriskitiñak joan borda zarretan, azkenekoak jetxi ziranean Asteasu aldera, abiatu ta laister mendien babesean sartu giñan, babesean aizerik ez eta bustirik ez obekuntza aundi xamarra. Bera goazela iritxi giñan puntu batera, lañoa bukatu ta eguzkia, etzan

gaizki etorri, Asteasura iritxi ta Joxe Luixek pixkabat kezkatu giñun, soñuaren bi botoi etziran altxatzen ezetasuna gatik, guk bazkaltzerako joan ziran ezetasunak eta bapo.

Billabonatik Antiguarako birea Tolosako tranbian egin gendun eta Igeldora, botak oñetako onak omen dira ibiltzeko baño orduko ankak ere etziran txarrak, joan eotrria alpargatakin egin arren igande gauean anketako miñik ez dantzarako.

Urrengo joan etorria Orio mendi aldeko lagunakin izan zan, berandu xamar iritxi giñan, amabiak inguru, eta ikurriña zegoen gurutzea aundiaren puntan bi guardia zibil ondoan zituela, eta arkaitz baztarretik iru mutil gazte beste aldera begiratzen zuten unean argazkiak ateratzen.

Urrengo joan aldietan asi giñan konturatzen gurutzeak ere bazaudela, Igeldokua pintatzeraz Erramun "porrus" deitzen genion bat joaten zan pintura potuak eta ixipiak artuta, bi urtetik bein. Usurbildarrok ere bagenduela eta begiratzen asi giñan, eta utzi xamarra zegoen, burni senduak ondo baño apaingarriak erdoituak eta batzuk desegiñak, urtero joaten giñan da apaingarriz osatu eta txukundu gendun, juandan urteko abuztun izan giñan da azkeneko eta ondo gelditu zan.


Nik emandako azkeneko igurtzia artua izango du, esaera bada gustoko tokian aldaparik ez, neretzat ezdu balio, lenengo urtean Igeldotik baño askoz nekosoagoa egin zitzaidan Iturriotzetik, eta geroztik ez naiz obetu.

Orain galdera batzuk datozkit burura, nork egiña ote da? Zeiñek ordaindue? Nortzuk eta nola eramana? eta abar, norbait gai izan ezker zerbait argitzeko, jakingarriak izango lirake.

Bukatzeko, laister eun urte izango ditu gurutze orrek, izango ote du merezi duen oiartzunik?

Elias Sagardia 77 urte. Artikula Txikin jaioa.

Oharra: jatorrizko idatziaren euskara errespetatu dugu.



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

EH Sukarra gaztetxean

Hementxe gaude berriro ere, eta, oraingoan zaharrak berri esan beharko! Izan ere, ehi-zaren irekiera eta angulen etorria baita momentu hauetan puri-purian ditugun bi albisteak. Hainbeste aurrerapen eta “modernismo”ren artean, gure arbasoen ohituraren bati eustea pozgarria baita gero!

Natura hizpide dugunez, udazken honetan gure Andatza ederrera joan nahi dutenentzat berri txar bat dugu. Izan ere, bertako txabolako kristalak apurtuta baitaude. Beraz, bertako egonaldia hego-haize epela dagoenerako utzi beharko dugu.

Amaitzeko, nola ez, gaztetxeaz hitz egin behar... eta oraingoan ere, beti bezala, kontzertu eder baterako gonbidapena egiten dizuegu. Hil honen 26an, larunbatean, EH Sukarrak hemen joko baitu, gaueko 22:30etatik aurrera. Etortzen ez dena ez da izango gonbidapena falta duelako. Hemen izango baikara zuen zain gau eder bat igarotzeko.



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Udazkenarekin batera, aerobika

Lehenik eta behin, Noaua!ko irakurleak agurtu nahi ditut, hauxe baita nire lehen kronika eta kronista lanetan, nire lehen idatzia ere.

Urrian sartzearekin batera, berriz ere, pixkanaka-pixkanaka egunerokotasunari eutsi beharrean aurkitzen gara; umeak ikastolara, gazteak institutura eta lanean gaudenok, oporrak jadanik ahaztuta.

Hala ere, gure herrian hainbat eta hainbat ekitaldi izaten dira lehen aipaturiko egunerokotasun honetatik ihes egiteko, eta eskerrak horri! Aukera bat aerobika dugu.

Urteak aurrera egin ahala, geroz eta herritar gehiago animatzen da. Niretzat aurtengoa hirugarren urtea da eta oso gustora joaten naiz; ez gara soilik kirola egitearren joaten, ondo pasatzera ere joaten gara. Sekulako algarak egiten ditugu ispilu aurrean elkarri begira.

Beraz, parre pixka bat egin nahi baduzu eta, gainera, soberan ditugun kilo horiek bota eta ipurdia jaitsi nahi izanez gero, badakizu zer egin.

Animatu!



Paitonea

Paitonea gure auzoko etxe baten izena dela esango banu, denek edo gehienek kopeta ximurtuko genuke, baina Patronanea esanda, berriz, ezagunagoa egiten zaigu.

1921. urtean Inaxio Zugaztik Madalena Maizi erosi omen zion baserria, Malenpatrona bezala ere ezagutzen dena. Eskrituretan Paitonea bezala azaltzen da. Loturik ba ote dago Madalena Maiz eta Malenpatrona edo Patronanea baserria izenaren artean? Ea bakarren batek argibiderik ematen dion galdera honi.

Hariari jarraituz, azken 35 urte hauetan ez da inor bizi izan eta egoera kaxkarrean egon da. Hala eta guztiz ere, zaharberritze lanetan hasiak dira jadanik. Baina, etxe historikoa izanik, jabeek ezin dute nahi duten guztia egin. Legeak agintzen duena egin behar; lehenengo solairua mantendu beharra dute eta harri bakoitzari bere tokia eman. Hilabete batzuk barru beste etxe berritu bat izango dugu Kalezarren, oraintxe ez dira asko geratzen.

Bestalde, auzotar batek aditzera eman zidanez,

Ezkerreneko fatxadan zegoen farola kamioi batek jo eta bota egin omen du. Udalarik ea ez ote duten berriz jartzeko asmorik galdetzeko eskatu zidan, gauean ilun xamar geratzen omen da eta. Beraz, horra hemen galdera.



Kalezar



**JOSEBA
PELLEJERO**

Aiton-amonak

Begibistan dago gero eta gehiago aiton-amon gehiago gaudela. Beste gauzetan bezala, hemen ere gure paper berria ikasi beharrean aurkitzen gara; bizimodu berri edo ezberdin baten aurrean aurkitzen gara, eta nola ez, hau ere bizitu egin behar, eta, gustora gainera. Titulu berria hartzea ez da nahikoa; hori ahalik eta hobekien lan-tzen saiatzen zara egunero.

Honen haritik, lehen plaza eta parkera azaltzen ez ginenok, orain sarritan joaten gara gure txiki-txoekin arratsalde pasa.

Atxegalden plaza bikaina dugu, baina, tamalez, bertako kolunpio eta jolas tokiak erabat utzita daude eta, ondorioz, nahiko egoera txarrean daude. Haurrek ez dute bertan gelditu eta jolasteko aukerarik. Tarte honetan lehen ere hitz egin izan da auzoan dugun arazo honetaz, baina arduradunak ez dira jabetu. Ea ba, zerbait lortzen dugun, auzoko guraso, aiton-amonok eta haurrak auzotik atera beharrik ez izateko.

Amaitzeko, ohar bat aipatu nahiko nuke. Aldatzendaren aurrean dagoen belardian argazki kamara bat ahaztuta utzi zen. Beraz, norbaitek jaso badu Aldatzera edo Laurokera ekartzea eskertuko genioke.



Atxegalde



**MARIA
JESUS
URBIETA**

SALOME
PORTU

Santueneka

Asteburu gaueko “diskotekak”

Norbait behar omen zuten Santueneko kontuei buruz hitz egiteko, eta oraingo honetan niri tokatu zait, ondo edo gaizki, ekin egin beharko diot lanari!

Lehen kronika honeta, hala eta guztiz ere, Urdaigako kontu batzuk ekarri nahi ditut orri haue-tara, gehiegietan errepikatzen ari baitira.

Lehen, gauean ohera sartzean, batik bat kilker hotsa eta insomnioak jotako txoriren baten kantua entzuten genituen. Baina, azken aldi honetan, ez dakit zer pasa den, baina badirudi diskoteka jarri digutela gure parkearen erdian. Asteburu gauean, behintzat, parkeko mahaiek atabalak dirudite, eta soinu hotsak auzoko leku lasaienetaraino iristen dira, astean zehar ematen dugun bizitza lasaia hautsiz.

Garai bateko zakurren zaunkak kotxeetako “altabazak” ordezkatu dituzte, eta hego-haizezko gau beroak oihu, dantza eta algara bihurtu dira. Parke eder honek xarma berezia du gauean, baina hortik egiten dutena egitera... Gaur goizean, esaterako, parkearen behe aldetik pasa naizenean, ostiral gaueko parrandaren



(edo larunbat goizekoaren) ondorioak ikusi ditut lur-rean botata.

Goizeko hiruretatik zazpiak aldera arte izaten dute musika monotono hori lagun, eta emaitza ez oso ona: kontainerra lur-rean, basura banaturik, pare bat whisky botela, tabako pakete ugari, eta mahaiei gainean bilduriko hainbat zerrikeria... eta beraiek izango duten ajea! Hau ere ikusteko modukoa izango baita.

Ez al da gure parkea ederregia txikizio honetarako?

Aldaketak

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaigak

Egunero igarotzen garean tokitik aldaketaren ebat izanez gero, berehala ohartzen gara horretaz. Hasiera batean, aldaketa horretara ohitzea kosta egiten zaigun arren, denborak aurrera egin ahala, lehenago izan zenaz ahaztu eta orain-goarekin gogoratzen gara.

Berritza aldetik pasatzen ez zaretenok ez zineten aldaketa honetaz jabetuko, baina egunero bide hori igarotzen dugunok konturatu gara Sendategiko sarrerako arku bota egin dutela. Nahiz eta, duela aste pare bat pasa bota zutenetik, eta egunero bitan edo bertatik igaro arren, ez naiz hutsune horretara ohitu.

Nire oroitzapen batzuen zati zen arku hori eta, bota zutenean, aitortu behar badut, tristura sentitu nuen. Arkua botatzearen arrazoiak jakin nahian, langile batekin hitz egin nuen. Sendategi inguruan obretan dabilta eta kamioiak ozta-ozta pasatzen omen ziren arkuaren azpitik. Baina, badago beste arrazoi bat ere; segurtasuna. Egunen batean, Sendategian suteraren bat egonez gero,

suhiltzaileen kamioiak ezingo luke bertatik pasa.

Beraz, bada nahikoa arrazoi eta ohitu egin beharko gara paisaje berrira!



Agur, “Ongi Etorriko” Txomin

Aurtengo San Praixkuak ere joan dituk! Eta nola ez- oilasko biltzaileak ere bai. Nere burua Astiazaran eta Balentin Zialtzetaren garaietara joan zaidak: haiek gure garaiak hituan.

Txomin. Hi beti hire adarrarekin taldea girotzen. Batzuetan, “goialdeko taldearekin”, eta besteetan “behekoekin”. Baina hire oihu berezia nabarmena izaten huan: “A-pee-pep-pep!”.

“Berandu goaztik, abiatu egin behar diagu, seiak jo diate!”. Bota etxaferoa eta danba. Eta “tiripi-tipiti”, soinuarekin batera abiatzen gintuan.

Arburun, goiko taldea zai. Behekoak Orioko Saroben (“Sabe” esan zioagu guk beti) zizarrarekin tripa gehiegi bete eta Gorostitik gora joateko aldapa atera ezinik. Arburura iritsi orduko, ederrak entzun behar. “Makalak, beti azkenak zarete”. Hortik aurrera errez, dena aldapa behera.

Plazara inguratzen ari gaituk. Etxeferoak urri eta hi horiek botatzen amorratua izan. Eta norbaitek abisua eman beharko dik: “Txomin, lasaitu hadi,



bestela etxeferorik gabe geldituko gaituk”. Denok farre egin diagu, eta aurrera. Ez huen etxe asko utziko hire dantza saioa eskaini gabe.

Azken dantza egin diagu. Dutxatu eta lo egiteko denborarik ez zagok. “Muserako laguna behar diat” esan dik norbaitek. “Bale” erantzun diok, “gaur txapela gurea izango duk”.

Iaz ere hemen hintzen, gazteekin. Eta aurtan Aginagan guztiok nabarmendu diagu hik utzitako zuloa.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Zubietako ikastaroak

Mendiak gorritzearekin batera hasten dira hegaztiak urrutiko epelaren falta sentitzen. Intxaurrak erortzen ari diren garai honetan, uztondotan ari dira baserritarrak Zubietan. Eta gu, guraso jendea, zertan ari gara? Ba nola baserritarrek uda ostean zekorrak ukuiluan sartzen dituzten, hala lotzen ditugu gurasook umeak udako larretik bueltan, kate motzean, alegia.

Joan den astean bilera izan dugu soinu txikia eta pandero irakasleekin: Dorrontsoro anai-arrebak. Honelako zerbaitekin izan zen, gutxi gora-behera:

Zein egunetan jarriko dugu soinu txikia? Astelehen arratsalderako proposatu du Iker irakasleak. Uharritzako Azpiondoko baserriko anderea kontuak ateratzen hasi da, eskuko behatzei txandaka tira eginez: astelehenean judoa, asteartean karatea, asteazkenean futbola...

-Ez ezan ahaztu errebotea eta dotrina - Plazako Kantoikoak albotik.

-Aizan, ez dun dotrina esaten, katekesia, neska, katekesia! -Arbolategikoak.

Azpiondoko baserrikoak katigatua zuen behatz luzea askatu eta erretolika jarraitu du: ostegunean katekesia eta ostiralean... errebotea, igeriketa... Hasperen sakonak eten du kontaketa. Bibieta Erdiko baserriko jaunak lagundu dio: arratsaldeak ordu luzeak dizkin bi langintza egun berean sartzen baditugu...

Azpiondoko indarberriturik ekiteko prest, baina Arbolategikoak aurrea hartu dio: astearte eta ostegunetan ezinezkoa da, umeak golfean egin behar du-eta.

Azpiondoko etxeakoandreak ez zekien zer egin bere eskuko behatzekin. Ordurako, beste batzuk ere baginen behatzekin kontaktzen ari ginenak. Handik ordu erdira edo, eta bide beretik, amaitu zen bilera...

Gero esnatu egin naiz amets honetatik, ohar hau eskuan nuela:

Zubietako ikastaroak

Soinu txikia, astelehen 5:30etatik 7:30etara.

Panderoa, asteartean 7:15etatik 8:15etara.

Zestoa, asteazkenean 7:00etan.

Zubietako



PEIO
ARANBURU

Seme-alabadun bikoteak diruz lagunduko dira



Martxan dagoen neurria da hauke. Seme-alaba gehiago izateak familiei dakarkien zailtasunei erantzuteko dirulaguntza bereziak arautu ditu Eusko Jaurlaritzak. Usurbilgo Gizarte departamenduak aditzera eman digunez, badira informazio eske hurbildu diren herritarrek.

Familiei edo bikoteei nahi adina seme-alaba izateko erraztasunak eman asmoa du ekimen honek. Hauek dira diruz lagun daitezkeen egoerak:

a) Bigarren semea edo alaba jaiotzea edo adoptatzea. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzei edo adopzioei zuzendua. Kasu honetan, onuradunek 1.100 euroko dirulaguntza jasotzeko eskubidea dute.

b) Hirugarren edo hurrengo seme-alabak jaiotzea edo adoptatzea. Hirugarren eta hurrengo seme-alabak bost urte izan artekoek zuzendua. Honakoan ere, 1.100 euroko dirulaguntza jasoko dute urtero.

c) Zenbait ume erditzea edo adoptatzea. Seme-alabek 10 urte bete arte luzatuko da dirulaguntza. 1993tik hona izandako erditze edo adopzioei ere aplikatuko zaie. Bikiak izan edo bi



UME GEHIAGO IZATERA ANIMATZEN DENAK JAKIN DEZAN DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO ESKUBIDEA DUELA.

seme-alaba adoptatuz gero, 2.600 euro urteko, seme-alabek hiru urte bete bitartean; eta 1.200 euro, haurrek 10 urte bete arte. Hirukien kasuan (edo hiru ume adoptatuz gero) 4.000 euro

**DIRU KOPURUA
HANDIAK EZ BADIRA
ERE, LAGUNGARRI
IZAN DAITEZKE
LAGUNTZA HAUEK**

urteko, seme-alabek hiru urte bete bitartean; eta 2.400 urteko, haurrek 10 urte bete arte.

Ume gehiago izan edo adoptatuz gero, diru laguntza kopuruak igo egingo dira.

Eskabide orriak eskuratu edo argibideetarako Eusko Jaurlaritzak Donostiako Antigua auzoan duen delegaziora jo beharra dago.

Helbidea: Eusko Jaurlaritza Gasteiz Kalea, 3-3 Donostia.

Telefonoa: 943 023 200.

WITZINGA
HERRIKO TABERNA
Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...
Telf. 943 36 02 17

Euskal freskak etxera!

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Udalak elkartasuna adierazi die espetxeratuei

Iragan astean bizitakoak eragin zuzena izan zuen udaletxeko martxan. Ez-ohiko plenoan, Udalak atxilotuei elkartasuna adierazi eta jazarpen militarra deitoratu zuen. Giza eskubideen batzordea ere bildu zen eta atxilotuen gurasoek egin bezala, Udalak ere baimenik gabeko miaketak salatzea erabaki zuen.

Tentsioz beteriko egunak izan dira. Giro horrek ere isla izan du udaletxeko martxan. Urriaren 2an egin plenoan, Udalak bat egin zuen herri batzarrak bezperan adosturiko idatziarekin (Usurbilgo Sozialista Abertzaleen aldeko botoekin eta EAren abstentzioarekin). PNV eta PSOEk zinegotziak ez ziren bertaratu. Udalak, Oihana eta Jokini elkartasuna adierazi eta astelehe-



JENDE ASKO HURBILDU ZEN
EZ OHIKO UDALBATZA PLENORA.

neko okupazio militarra gaitzetsi zuen. Bide batez, gatazka politikoaren konponbidea neurri polizialestatik baino Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen aitortzagatik etorriko dela dio Udalaren idatziak. Giza Eskubideen Batzordea ere bildu zen eta, besteak beste, gurasoek eginiko salaketarekin bat etorri zen.

MUGIKORTASUN ARAZOAK DITUZTEN HERRITARRENTZAT

Mugikortasun arazo larriak dituztenek edo garraio publiko normalizatua erabili ezin dutenek udal garraioaz baliatzeko eskubidea dute. Arautegi berria onartu da eta Ongizate eta Osasun bulegoan jaso dezakezue honen guztiaren inguruko informazioa.

IGOGAILUAK JARTZEKO ARAUDIA ONARTU BERRI DA

Bi solairu edo gehiagoko etxean bizi bazarate eta igogailurik ez baduzue dirulaguntza jasotzeko aukera duzue. Aukera hori ez dute izango jada igogailua eduki eta aldatu nahi dutenek edota etxebizitza familia bakarrekoa edo isolatua edo adosatua bada. Dirulaguntza gehienez 601,01ekoa izango da. Informazio gehiago Ongizate bulegoan.

Galdeiozu!!



JOSE ANTONIO
ALTUNA, ALKATEA

ETXEBIZITZEN SALNEURRIA OSO ALTUA DA HERRI HONETAN, ALKATEAK ZERGATIK UZTEN DIE PROMOTOREEI BALIO HANDIKO ETXEAK EGITEN, GU GAZTEOK ETXE HORIEK EROSTEKO AUKERARIK EZ DUGUNEAN. KALEZARREN EDOZEINEK EROSTEKO MODUKO ETXEAK EGINGO AL DIRA? USURBILGO GAZTE BAT, NAN 72464621Q

Guk beti izan dugu babes ofizialeko etxeak egiteko asmoa eta nahia. Informazio moduan azalduko dut 1990-1992an onartu zirela arau subsidiario berriak eta orduan planteatzen ziren 113 etxe babes ofizialekoak. Hala ere, hamar urte hauetan, babes ofizialeko 239 etxebizitza bideratu ditugu, arau aldaketa puntualak eginda. Horiek propietate pribatuarekin tratatu ezberdin batzuen ondorioz lortu dira. Orain agortuta daude aukera horiek. Arau subsidiario berriak prestatzen ari gara eta 240 babes ofizialeko etxeak gauzatzea planteatzen da. Baina etxe horiek banatu eta jasotzeko (bizkor ibilita eta udal barneko arazorik ez balitz) urte eta erdi beharko litzateke obrak hasteko. Kokapena, Olarriondo aldean.

Bigarren galderari erantzunez, alkateak ez du inongo gogorik edo interesik etxebizitzak oso garestiak izateko, nik ere nire familia dut eta arazorik nagusienetako bat hori da, ez nagusia. Gainera, alkatea horrelako erabakietan beste edozein zinegotzi bezala da. Udalak bere arauak egiterakoan muga asko izaten ditu eta azken dekretuak kontuan izanda, handiagoak oraindik. Gauzak ezin ditugu beti guk nahi dugun bezala planteatu baina saiatzen gara ahal dugun guztia egiten, horretan ziur egon. Etxeen prezioak, hala ere, eskaintza eta eskariaren arabera daude. Kontuan izanik Donostia ondoan gaudela, egia da prezioak desproporzionatuak direla, eta arazo nagusia hori kontrolatzea da baina ez dago dena gure esku. Lurren prezioak ere eragiten baitu salneurrian.

Bidali zure galdera eta zehaztu nori zuzendua dihoan: Noaua! - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil / noaua.k.e@euskalnet.net

Komisaldegiko infernutik espetxera

Soto del Realeko espetxean dira Oihana Lizaso eta Jokin Errasti gazteak. Irailaren 30ean atxilotu egin zituztenetik ez da girorik izan. Bi miaketa eman dira baina Lege Antiterrorista dela eta, informazio falta nabaria izan da. Ezintasun hori batez ere senitartekoei pairatu behar izan dute. Oihanaren aitak eman zigun lehen bisita egunean sentitutakoaren berri. Bide batez, egun hauetako bizipenak azaldu dizkigu anaia duen Agustin Lizaso zinegotziarekin batera.

Inkomunikazio egoera horrek ezintasun handia eragiten du, ezta?

Agustin Lizaso. Tamalez, egunero gertatzen den gauza da. Gertutasunagatik akaso orain sentsibilizatuago egon gaitzek denok, baina tamalez egunero gertatzen da. Aitak eta amak 1987an jasan zuten eta aitak, berriz ere, 1994an. Gogorra izan behar du norberarentzat, baina kasu honetan latzagoa, alaba eta bere mutila egoera horretan ikusita. Ezin da ezer egin inkomunikazioak irauten duen bitartean. Guardia Zibila astelehenean etorri zenean bitan joan ginen alkateta eta biok lekukorik gabeko miaketak egiten ari zirentz galdezka. Hirugarren batean Patxirekin hurbildu eta alde egiteko, bestela gu ere atxilotuak izateko arriskua genuela esan ziguten, autoritateari desobedientzia larria egiteagatik. Inpotentzia nagusi da horrelakoetan. Bizilagunek esanda, badakigu Guardia

Zibila iritsi eta berehala ateari danbatekoa eman eta ireki egin zutela.

Lehen eguneko miaketak 7 orduz luzatu ziren baina lehen 4 orduetan ez zen lekukorik ez botere judizialeko ordezkarik izan.

Agustin Lizaso. Okerrena da ez dakigula etorri ote zen ala ez. Ez zen inorren aurrean aurkeztu. 22:00ak aldera Jokin eta Oihana ekarri zituztela badakigu baina ez dakigu epailerik edo arduradun judizialik etorri ote zen.

Patxi Lizaso. Oihana eta Jokini ez zieten ezer ikusten utzi.

Madrilera ere joan zineten Entzutegi Nazionaleraino baina alperrik izan zen, ezta?

Patxi Lizaso. 12:00etan iritsi ziren entzutegira baina 10:00ak aldera jada irratian entzun genuen espetxera zihoaztela eta zein zen akusazioa.

Agustin Lizaso. Hor ikusten da komunikabideak botere judiziala zein polizialaren aurrean salduta daudela. Atxilotuaren defentsa eskubidea ere ez da errespetatzen.

Igandean Soto del Realen izan zineten bisitan. Nolakoa izan zen bisita?

Patxi Lizaso. Nik ezagutu dudanaren parean, bisita oso ezberdina izan zen. Neskak eta mutilak denak batera ekarri zituzten. Denekin besarkatu eta hitz egiteko aukera izan genuen, bai Jokinekin, bai Aritzekin (hirugarren atxilotua) baita



LEHEN MIAKETAK 18:30AK ALDERA HASI ETA 02:00AK ARTE IRAUN ZUEN.

Oihanarekin ere. Tarte batean biekin batera izan ginen.

Nola ikusi zenituzten?

Patxi Lizaso. Oso ondo, animoz sendo. Ordu betez izan ginen beraiekin. Animoak eurek eman zizkiguten.

Torturen berri eman al zuten?

Patxi Lizaso. Ez genuen horretaz hitz egin, ez zitzaigun burutik pasa. Abokatuak esan zigun inkomunikazio epea bortitza izan zela. Gero periodikue-tan esan bezala, Oihanaren kasuan, biluz-tuarazi egin zuten, bortxatzeko mehatxua egin zioten, boltsa... Bi koltxoi artean jarri eta kolpeak ere jaso zituen. Aargalak ikusi nituen biak, egun horietan ez omen zuten ezertxo ere jan.



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurrepegioko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87



URRIAREN 1EAN EGIN HERRI BATZARREAN JENDE UGARI BILDU ZEN.

Espetxeari buruz zer diote.

Patxi Lizaso. Oihana beste preso batekin dago ziegan eta moduluan 8 bat daude. Tartean 42 urteko bat eta hari ama deitzen diote. Bera da gazteena 22 urterekin. 23 urte hilaren 23an egingo ditu. Esan digutenez, espetxe lasaienetakoa da baina ez dakite han jarraituko duten ala aldatuko ote dituzten.

Elkarrekin egoteko aukera izan al dute?

Patxi Lizaso. Pasa den igandeko bisitan (urriak 6) biek elkarrekin egoteko aukera izan zuten. Antza denez, Intxaurrondon ere elkarrekin egoteko tarte bat utzi omen zieten. Juzgadoetik pasa eta gero deitzeko aukera izan zuten. Orain tramitazioetan dabilta, elkarbizitzeko agiria badute eta "bis a bis"ean biltzeko eskubidea dute. Bisita egunak ere

zehaztu dizkigute. Oihanaren kasuan ostiraletan edo igandetan. Jokinekin, berriz, ostiraletan edo larunbatetan.

Egun hauetan asko izan dira egin diren mobilizazioak. Bizilagunen babesa lagungarria izango zen, ezta?

Patxi Lizaso. Bai, eskertzekoa izan da herritarrengatik jaso dugun babesa. Oihanak eta Jokinek ere eskertu nahi dituzte jendearen animoak, miaketetan ekarri zituztenean entzun zituzten bildutakoen oihuak eta animoak.

Zuen kasuan, nola daude etxeokak?

Patxi Lizaso. Ni behintzat lasai nago orain. Behin polizien eskutik pasa eta gero nahiz eta espetxean egon, lasaigo nago. Lehendik pasa ditugu lege antirrorista horren pean pasa beharrekoak.

GERTAEREN KRONOLOGIA

Irailak 30. 17:00ak aldera Mikel Errasti eta bere neskalaguna geldiarazi egin zituzten Donostian. 15 minutura libre utzi zituzten baina 18:00ak aldera Guardia Zibilak Jokin eta Oihana atxilotu zituen Urbilgo jatetxe batean. Segidan miaketak hasi ziren. 22:00ak aldera ekarri zituzten atxilotuak eta handik gutxira iritsi zen epailea. Jazarpen polizialak gaueko 01:45ak arte iraun zuen.

Urriak 1. Atxilotuen senitartekoek bezperako miaketa salatu zuten Donostiako epaitegi batean. Iluntzean Herri Batzarra egin zen gertatutakoak azaldu eta mozio eskaera aztertzeko. Manifestazio jendetsua egin zen ondoren.

Urriak 2. Miaketa berri bati ekin zion Guardia Zibilak. 14:20etatik 16:30ak arte. 17:00etan Udalak atxilotuen senideei elkartasuna adierazi eta miaketa prozedura salatu zuen ez-ohiko udalbatza plenoan. Manifestazioa egin zen ondoren.

Urriak 3. Udaletxeko giza eskubideen batzordea bildu zen goizeko 9:00etan. 17:00etan prentsaurrekoa eskaini zuen pleno aretoan. Besteak beste, senideek eginiko "habeas corpus"-aren eskaerarekin bat egitea erabaki zen.

Urriak 4. Entzutegi Nazionaleko Teresa Palacios epailearen aginduz Oihana Lizaso, Aritz Lasa eta Jokin Errasti Soto del Realen espetxeratuak izan ziren. Senideak eta abokatua Madrilen izan ziren baina prentsa bidez izan zuten espetxeratzearen berri.

Urriak 5. Abokatuak atxilotuak bisitatzeko aukera izan zuen eta hiru gazteek torturak jasan zituztela adierazi zioten.

Tentsioz beteriko orduak

Atxiloketak egin eta berehala hasi ziren bikotearen etxea miatzen. Informazio gutxi eta zurrumurru asko zabandu ziren epe laburrean. Aginagan atxilotu eta helikopteroz eraman zituztela, Aginagan ere miaketak egiten ari zirela... Zurrumurru ugari eta ezintasuna. Senideen artean, batez ere. Guardia Zibilak esan zien miaketak epailea iritsi arte ez zirela egingo. Baina bertsio hau sinesgaitza egiten zitzairen. Miaketak jende askok jarraitu zituen eta epe horretan gutxienez 15 lagun izan ziren identifikatuak.

Oihana Lizaso Matxain

C.P. Madrid V, mod. 12
Carretera Comarcal 611
28.791 Soto del Real
Madrid

Jokin Errasti Elorza

C. P. Madrid V, mod. 5
Carretera Comarcal 611
28.791 Soto del Real
Madrid

Usurbilgo nekazal produktuen ordua iritsi da

BA AL DAKIGU ZER KONTSUMITZEN DUGUN? KALITATEA AXOLA AL ZAIGU? BERTAN LANTZEN DIREN ELIKAGAIEN BERRI BA AL DUGU? PENTSATU AL DUGU INOIZ DENDETAN DAUDEN ELIKAGAI GEHIENAK ZERGATIK DIREN ASKOZ MERKEAGOAK? NEKAZARITZA DEPARTAMENDUAK EZTABAIDAGAI HORI PLAZARATU ETA BERTAKO EKOIZPENA SUSTATU NAHI DU URRIAREN 13AN HASIKO DEN KANPAINAREKIN.

Udaletxeko nekazal teknikari den Begoña Rodríguez aditzera eman digunez, herrian badira nekazaritzatik bizi diren 10 bat hustiaketa. Baina merkaturuko legeek ez dute barkatzen eta arazo asko dituzte ohiko saltokietako produktuen aldean. Hasteko, prezioan. Nekazari edo ekoizle txikiak, ordea, askoz gehiago dira. "Babesten ez baditugu epe laburrean desagertu egingo dira", adierazi digu Begoña Rodríguez. Horregatik jarri da martxan hizpide dugun kanpaina. Lehen hitzordua, hilaren 13an pilotalekuan.

Udal arduradunek bertako ekoizpena sustatu nahi dute. Izan ere, "Usurbilen bada kontuan izan beharreko ekoizpen bat. Produktu horien kontsumoa sustatu nahi dugu", azaldu digu Begoña Rodríguez.

Martxan dauden hustiaketak nahikoa arazo dituzte etorkizunari aurre egiteko. Zaila da esplotazio berriak sortzen ikustea. Horregatik, eguneroko martxan jaten duguna nongoa den eta nolakoa den jakinaraztea garrantzitsua da.



Bertan egindakoa kontsumituz bertako baserria mantentzen lagunduko baitugu.

Urriaren 13ko azoka, dena den, ez da ekitaldi puntuala izango. Kanpaina baten abiapuntua baino ez da. Nekazaritza departamendutik ekimen gehiago bideratuko dira bertako ekoizpena sustatu asmoz. Ekoizpenaren kalitatean sakondu nahi da, jada lantzen dena hobetze bidean.

IKUSTEKO ETA DASTATZEKO AUKERA UGARI

EGITARAUA

Urriaren 13ko 11:30etatik 14:00etara Usurbilgo produktuen erakusketa.

12:00etan Agiñako piperrak enpresaren instalazio berrien irekiera.

12:30etan dastaketa.

ELIKAGAIK DASTAGAI

Piperrak, oilasko-izterrak, txerriak, txorizoa eta urdaia, sagardoa.

ABEREA IKUSGAI

Txerriak, oilaskoak, astoa, ardia eta arkumeak, behia eta txekorra

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Oxigeno - Ozonogintza

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



**ANTZA DENEZ,
AURTEN EZ DA PIPER
EGUNIK EGINGO.
URRIAREN 13AN
DASTATU AHAL IZAN-
GO DUGU, DENA DEN.**

Esan beharra dago sektorean aspaldi piztu zela argi gorria. Dena den, batzuentzat alperrikako ekimena izan arren, hustiatzaile gehienek ezer ez egi-tea baino hobea dela uste dute. Begoña Rodríguezek aipatu digun bezala, "gehienak etsita daude baina kanpaina hau begonez hartu dute".

AURTEN EZ DA PIPER EGUNIK OSPATUKO

Aurtan ez da Piper Egunarik ospatu-ko. Hala ere, piperra izango da urria-ren 13ko izar nagusietako bat. 12:00etan Agiñako piperrak enpresa-ren instalazio berrien irekiera ofiziala egingo da eta segidan piper dastaketan

parte hartu ahal izango dugu. Oilaskoa eta txerriak dastatzeko auke-ra ere izango dugu. Abereak ez dira fal-tako. Txerriak, oilaskoak, astoa, ardiak eta behiak ere ikusgai jarriko dira.

Piper eta sardinez egindako tartaleta

Nekazal produktuen egunaren aitzakiarekin bertako osagaiekin plater bat aholkatzeko eskatu diogu Atxega Jauregiko arduradunari. Mikel Garmendiak eman digu errezeta goxo hau, aperitiboetarako espeziala, eta oso erraza da egiten.

Osagaiak: 8 lagunentzako tartaleta egiteko haxe da behar duguna: 28 zm-ko moldea, 200 gr piper, 4 sardinzahar, 2 arraultz, 1/4 litro esne-gaina edo nata.

Nola egin: Mehe ebakitako tipula olio pixka batekin sutan jarri zartagi batean. Tipula presik gabe frijitu ondoren, moldean ipini. Tipularen gainean jarri piperrak txikituta. Sardin zaharra zuritu lehenbizi, haragia txikitu eta moldean jarri tipularen gainean. Arraultzak ondo batitu eta esnegainarekin nahastu ondoren moldera ixuri. Labea 140/150 gradutara ipini eta moldea sartu 20 minutuz. Atera eta jan. Gatza ez bota sardin zaharrak nahikoa badu eta.



**PIPERRA EZINBESTEKOA
DA MIKEL GARMENDIA-
REN ERREZETA HONETAN.**

JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08

txirriStra
TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogiltarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Telf: 936 36 04 66

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Berritua dator kiroldegiko eskaintza



Kiroldegiak ikasturte berriko eskaintza osatu du. Ohiko jarduerak mantentzen dira baina honakoan proposamen ezberdin bat egin nahi digute. Arte martzialek indar handia hartu dute eta horren jakitun dira kiroldegiko arduradunak. Kenpo kay izeneko ikastaro bat jarri nahi da abian. Kung Fu-ren antza omen dauka baina autodefentsan oinarritzen da. Heldu zein haurrei zuzenduriko taldeak osatu nahi dira. Iñaki Arbelaiz kirol jarduera honetako irakaslea da Oiartzunen eta berak eman dizkigu Kenpo kay-ren inguruko xehetasunak.



KENPO KAY JATORRIZ TXINAKO ARTE MARTZIALA DA BAINA JAPONIATIK IRITSI DA NAZIDARTE MAILARA.

Denboraren poderioz karate, judo, taekwondo, wu-su... eta antzeko arte martzialak ezagunak zaizkigu, behintzat izenak ez dira arrotzak. Hizpide dugun kirol jarduera, Kenpo kay izenekoa, iritsi berria da. Oiartzunen, Astiagarragan eta Pasaian badira hau praktikatzen duten taldeak. Orain Usurbilen talde bat osatu nahi da. Kiroldegiak aukera hau eskaini nahi die herritarrei. Iñaki Arbelaiz irakaslearen esanetan, "jatorriz txinatarra da espezialitate hau. Dena den, duela 50 urte Ishizaka sendiari esker ezagun egin zen Japonian. Eta handik hona iritsi berri da orain gutxi", azaldu digu Iñaki Arbelaiztek. Ez omen da erraza esplikatzeko baina antza handia

omen du Kung fu-arekin. Ez dira gauza bera, baina Kung fu-a bezain ikusgarria da. Hasiera batean gorputz mugimenduak lantzen dira, baina aurrera egin ahala bestelako tresnak maneiatzen hasten dira Kenpo kay-ko ikasleak: sokak, makilak, ezpata... Dena den, Iñaki Arbelaiztek adierazi digunez, "autodefentsa teknikak dira irakasten direnak. Ez da borrokorako jarduera bat".

Hori da hitz gutxitan Kenpo kay jardueraren funtsa, beste kultura batetik datorkigun diziplina, baina kirol-jarduera moduan, fisikoki maila egokian

mantentzeko egokia dena.

Usurbilen bi talde osatu nahi dira. Haurrekin, batez ere, gorputza landu ohi da; beti ere, ariketa eta jolasen bitartez. Astean bi egunetan bilduko lirateke, 17:00etatik 19:00etara. Helduekin, berriz, gorputz mugimenduekin hasi eta gutxinaka teknika ezberdinak landu. Hauek ere astean bitan baina iluntze partean, 20:00etatik aurrera.

Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi baduzu kiroldegira jo dezakezu. Ikastaroa laster hastekoa da.



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

TXURRUT

TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

Arrakasta handia izan zuen Pilota Txapelketak

Pozik daude Herriko Pilota Txapelketa antolatu duten lagunak. Batetik, giroa primerakoa izan zelako. Finaletan jende asko bildu zen frontoi inguruan. Eta bestetik, maila handiko partidak ikusi ahal izan zirelako.

Gustura daude pilota txapelketako antolatzaileak. Pozik egoteko arrazoirik ez zaie falta. Jendeak zuzenean jarraitu zuen txapelketa osoa eta fina-

lak ez ziren oharkabeen pasa. Partidak azken unean erabaki ziren eta horrek ere emozioa eraman zuen frontoiko harmailetara. Gaztetxoen artean, Olaizola-Irastorzak nagusitu ziren 18-12ko emaitzarekin Esnaola-Bengoetxeari irabazi ostean. Gazteen artean, Bengoetxea eta Urkiak irabazi zuten Orena eta Iraolaren aurkako norgehiagoka, 22-20 emaitzarekin. Helduen artean, Sancho-Landa bikotea izan zen nagusi Errasti-Arruti bikoteari 22-19 gailendu ostean.



PILOTA TXAPELKETAREN FINALEKO PARTIDAK GIRO EDERREAN JOKATU ZIREN.

PILOTARIEN BILTZARRAK

RAMON IPARRAGIRREREN LANA GORAIPATU DU

Ramon Iparragirre zubietarrak urteak egin ditu erreboteko kantari lanetan. Zubietako plazara hurbildu izan denari ezaguna egingo zaio Ramonen lana. Ahalegin hori behintzat ez da oharkabeen igaro Pilotarien Biltzarrak erakundearen-tzat. Urriaren 6an egin bazkarian domina bat eman zioten Ramoni. Urte hauetan guztietan errebotearan alde egindako lana eskertu asmoz, Pilotarien Biltzarrak omenalditxo eskaini zion. Erakundeko lehendakari den Jean Haritxelar eta Hegoldeko ordezkaria den Mikel Eizagirreren eskutik jaso zuen domina. Giro onean bazkaldu ostean kanturako tartea ere izan zen Biarnoko Eskiula herrian eginiko bazkari ederrean.



Hurrengo saioak !!

FUTBOLA

Urriak 13

Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Ostadar FT.

Erregionala 2. maila: Dunboa-Eguzki - Usurbil FT.

Kadeteen 2. maila: San Patricio - Usurbil FT.



USURBIL F.T.

Urriak 20

Emakumezkoen liga: Hernani CD - Usurbil FT.

Erregionala 2. maila: Usurbil FT - Martutene KE.

Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - Baskonia B.


Urriak 27

Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Antoniano.

Erregionala 2. maila: Urnieta KE - Usurbil FT.

Kadeteen 2. maila: Axular KKE - Usurbil FT.

Oharra: zure taldeko egutegia hemen ikusi nahi baduzu, pasa zaitez Noaua!ko bulegotik edo bidali e-mail bat helbide honetara: noaua.k.e@euskalnet.net



Aginagan izan ziren Takolo, Pirritx eta



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak aurten ere Aginagako festetan izan dira. Idatzi hau eman ziguten Noaua! Txikiko irakurleentzat. Erantzun beharko diegu, ezta? Noaua!ra bidali pailazoentzako agur bero bat eta zorte pittin batekin zurea izango da Takolo, Pirritx eta Porrotxen kamiseta bat. Bi ditugu zuen artean zozketatzeko. Animo!


"Aupa Usurbil eta Agiñako lagunak!

Piperrak, txitxardinak eta babarrunak!



Maite zaituztegu, pila-pila... patata tortila!

Letra zopa

Barruan daude izenak. Bilatu!!



K	I	P	I	P	A	L	M	I	H
A	L	E	P	A	X	T	T	S	E
S	O	L	S	U	T	X	O	R	G
B	A	I	A	T	I	A	N	D	A
Z	E	U	N	M	O	K	I	T	Z
U	O	H	I	L	E	U	N	A	K
H	X	N	A	A	R	R	O	A	I
Z	I	A	R	T	U	R	I	T	N
A	R	E	R	B	Z	A	P	A	A
P	U	R	A	N	E	A	Z	P	A
R	L	I	U	I	R	G	A	Z	O
L	A	T	E	P	O	K	S	E	L



Lehiaketa !!



UDA HONETAN FESTATRIK
FESTA IBILI DA BIKOTE
EZAGUN HAU.
BA AL ZENEKIEN NORTZUK
ZIREN?
ERRALDOIAK, NOSKI!

Irabazlea. Itziar Alkorta Matxain.
Saria: Yasar Kemal-en "Zanpa ezak sugea"
(Txalaparta argitaletxea).

Denborapasak !!

● Usurbilgo herri eta auzo zenbait

	●	▼		Begira	▼	Gipuzkoan, niri	▼	Euskal lurraldea	▼	Ikas eta Ari
	●			Lemazaina		Jaurti		Kontso. bikoitza		
	▶									▼
			Idorrak	▶						
			Kontso. bustia							
●	▼		Setati	▶	▼				Baldin- tzetan	▶
Titia			Pl., itsas arraina						Irakasle arra	
▶										
						Bokala	▶	Masurioa	▶	Izan
						Ogi, hitz elkarketan		Emakume izena	▼	
Idi, hitz elkarketan	▶			Garai	▶			Kasik	▶	Uranioa
Txingurri- tegiak				Musika nota				Infin., ekarri		Kanpo, landa
▶										▼
Emakume izena	▶				Bokala	▶		Itsas- bazter	▶	
Nafarroako ibaia					Aluminioa			Bromoa		
▶										
				Bokala	▶	Baneuka	▶			Nitrogenoa
				Bokala		Bokala				Potasioa
Sorginen bilkurak	▶			▼		▼			▼	●

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

* Astegunetan bakarrik

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55		13.30	13.35	13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55		14.30	14.35	15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25		15.30	15.35	15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30			16.30	16.35	17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05		18.30
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05		19.30
20.00	20.20	20.30		18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.25	20.35	20.55#		19.30	19.35	20.00
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05		20.30
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.15	20.40
22.15	22.35	22.45	23.05	20.45	21.05	21.15	21.40
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.30	22.55	23.05	23.25	21.45	22.05	22.15	22.40
00:00		00.25	00.45	23.15	23.35		00.00
02:00		02.25	02.45	01.15	01.35		02.00
04:00		04.25	04.45	03.15	03.35		04.00
06:00		06.25	06.45	05.15	05.35		06.00

**Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatic dator ■ Astegunetan
 ■ Soilik ■ Larunbat
 ■ larunbata gauez ■ lanegunetan

Goardiako farmaziak

URRIAK 12, LARUNBATA

E: Rodriguez Kale Nagusia, 42 Lasarte

G: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 Hernani

URRIAK 13, IGANDEA

E: Rodriguez Kale Nagusia, 42 Lasarte

G: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 Hernani

URRIAK 14, ASTELEHENA

E: Acha-Orbea Hipodromo etor. 6, Lasarte

G: Arzallus Aita Larramendi, 16 Andoain

URRIAK 15, ASTEARTEA

E: Urbistondo San Frantzisko, 1 Lasarte

G: Diaz Kale Nagusia, 19 Andoain

URRIAK 16, ASTEAZKENA

E: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte

G: Elizondo Zumea kalea, 30

URRIAK 17, OSTEGUNA

E: De Miguel Kale Nagusia, 32, Lasarte

G: Gorospe Rikardo Arregi, 12 Andoain

URRIAK 18, OSTIRALA

E: Rodriguez Kale Nagusia, 42 Lasarte

G: Zatarain Arteta kalea, z/g Andoain

URRIAK 19, LARUNBATA

E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte

G: Correa Perkaiztegi, 8 Hernani

URRIAK 20, IGANDEA

E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte

G: Correa Perkaiztegi, 8 Hernani

URRIAK 21, ASTELEHENA

E/ G: Vidaur Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte

URRIAK 22, ASTEARTEA

E/ G: De Miguel Kale Nagusia, 32, Lasarte

URRIAK 23, ASTEAZKENA

E/ G: Rodriguez Kale Nagusia, 42 Lasarte

URRIAK 24, OSTEGUNA

E/ G: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte

URRIAK 25, OSTIRALA

E/ G: Acha-Orbea Hipodromo etor. 6, Lasarte

E: egunez. G: gauez (21:00etatik

09:00etara). E/G: Egunez eta gauez

Udaltzaigoaren ordutegia

• ASTEGUNETAN

6.00/22.00

• ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN

7.00/22.00

GAINONTZEKO ORDUAK TELEFONAZ

ATEA ITXITA AURKITZEN BADUZU

DEITU TELEFONO HONETARA

943 361 112

656 799 850

Datorren Noaua!

Urria						
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

● Hurrengo alea

Bai esan?

• Udala.....	37 19 51
• Udaltzaingoa.....	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak.....	37 01 48
• Anbulategia.....	36 20 13
• Udarregi ikastola.....	36 12 16
• Udarregi (Kalezar).....	36 45 00
• Agerialde ikastetxea.....	36 38 95
• Oiardo kiroldegia.....	37 24 98
• Zumarte.....	37 15 94
• Etumeta.....	37 20 01
• Taxi geltokia.....	36 21 78
• D.Y.A.....	46 46 22
• Ertzantza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdiak.....	112
• Anbulantziak.....	112
• Posta Kutxa.....	
• Gure Pakea.....	37 32 28
• Gure Elkartea.....	37 17 51
• Arrate egoitza.....	36 63 40
• Eusko Tren.....	47 09 76
• Noaua! aldizkaria.....	36 03 21
• Bake epaitegia.....	37 23 36
• Oa farmazia.....	37 60 76
• Iturralde farmazia.....	36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	47 09 76

Oharrak

Txerrimunik ordainetan

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. Telf: 943 364469.
- Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13

SALEROSKETA / GARAJEAK

- Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- Txaramuton 30 m2-ko garaje itxia. 26.821 eurotan salgai. Deitu 666 646 847 zenbakira.
- Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreraren). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratssez).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).
- Pertsona bat eskaintzen da arratsalde bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).

Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Irailetik aurrera, 9:00etatik 14:30etara. 943 360 096 /650 947 142.

- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.

- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.

- Tabernari bat behar da Txurrut tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

- Tabernari bat behar dugu Antxeta Jatetxean lan egiteko. Deitu: 943 370 344.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- Ford Escort bat salgai. SS-AJ, motorra berritua. 100.000 pta edo 601euro. Tf: 943 650619.
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15`llantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Telefonoa: 649 322 873.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Txakurkumeak salgai. 3 hilabeteko setter ingelesak; desparasituak eta bakunatuak. Guraso ehiztariak. 180 euro. Tel: 679 207 156.
- Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- Andazpe elkartearen bazkideak behar dira. Baldintzak jakin nahi badituzu deitu: 943 36 54 66.
- 100 litro esne pilatzeko eta fresko mantentzeko "Etxe-hotz" markako tankea eta behiak jeisteko "Euromilk" markako motorra salgai daude. 943 364 542 (Felix, Nekane).

JAIOZAK

- **Jonathan Martin Barragan.** 2002-X-1. Erdiko kalea.

- **Jone Allur Maiz.** 2002-X-3. Erreka Txiki.

HILDAKOAK

- **Carlos Garcia Monton.** 2002-IX-23. Txiki Erdi.

- **Miguel Larreta Amondarain.** 2002-IX-24. Agerre Txiki baserria.


- **Rosario Marin Gala** 2002-IX-30. Munalurra.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak,
doaneko zerbitzuak:

Noaia! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
noaia.k.e@euskalnet.net

Agenda

Literaturaren Txokoa



Letra txikiaz bada ere

Joan Mari Irigoienek poesia zuzena idatzi du "Letra txikiaz bada ere" liburuan, probokatzaileria, erraza, tarteka zakarra, dibertigarria, gai sozio-politikoak gordintasun osoan azalduz eta bere iritziak lotsarik gabe agertuz. Gure garaia den bezalakoa delako eta hari ihes egiterik ez delako; idazleak bere barruko ezinegona kanporatu behar baitu erreko ez bada, bere malaletxea adierazi behar baitu irakurleekin zintzoa izango



bada. Hortik titulua ere, batere poetikoak ez diren gaiak buruz aritu nahi duelako, letra txikiaz bada ere.

Fitxa teknikoa:

Izena: "Letra txikiaz bada ere"

Egilea: Joan Mari Irigoien

Argitaletxea: Elkarlanean, "Poesia sail berria"

Orrialdeak: 288.

Neurriak: 19x12 cm

Salneurria: 17,80 euro (2.962 pta.)

Egin kontu

Hilaren 20an Tuteran, Nafarroa Oinez 2002

Argia ikastola da aurtengo Nafarroa Oinez antolatuko duen ikastola. 18 urte ondoren eta hamaika zailtasun gainditu ondoren, egun guztiz sendotuta dago Argia Ikastola. Euskararekiko begirunea eta kontsiderazioa transmititzeaz gain, ikastolak gizartean eta hezkuntza arloan merezi duen onarpena jaso du.

Nafarroa Oinez jaiarekin gimnasioa, jolas lekuak, komunak eta baita Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa osoa ezartzeko baliabide ekonomikoak bildu nahi dira.



URRIAK 12 - larunbata

- EUDIMAK (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitateak) deituriko manifestazioa Donostian. 17:30etan.

URRIAK 13 - igandea

- Bertako nekazal produktuen eguna Usurbilgo plazan. 11:30etatik 14:00etara Usurbilgo produktuen erakusketa. 12:00etan Agiñako piperrak enpresaren instalazio berrien irekiera. 12:30etan dastaketa.

URRIAK 19 - larunbata

- 1955ean jaiotakoen bazkaria Sekaia Jatetxean. Izena emateko deitu telefono zenbaki honetara: 943 37 26 46 (Josune).

URRIAK 20 - igandea

- Nafarroa Oinez 2002 Tuteran.

URRIAK 21 - astelehena

- Ziortzan ikasturte berriaren aurkezpena Txiki zein gaztetxoak (12-13 urte) 19:30etan bilduko dira apaiz etxean.

URRIAK 23 - asteazkena

- Ziortzan ikasturte berriaren aurkezpena gazteen taldeari dagokionez. 19:30etan bilduko dira apaiz etxean.

URRIAK 28 - astelehena

- Odol ateratzea osasun egoitzan, ohiko ordutegian.

N•I
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Zubiaurrenea, 5 - 1.a
Tel.: 943 36 19 51



Beheko kalea, 4
Tel: 943 36 57 42

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK

BORDATXO
EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

www.noaia.com

Noaia! hamaboskaria on-line

:: Usurbil

- ... Historia
- ... Kokapena
- ... Auzoak
- ... Artea
- ... Herriko produktuak
- ... Sagardoa
- ... Angula
- ... Errebotea
- ... Jai aipagarriak
- ... Zerbitzuak
- ... Ibilbide interesgarriak
- ... Apunte interesgarriak
- ... Herriko taldeak
- ... Bai, esan? Telefono
- ...interesarriak

:: Kultur Elkarteak

- ... Nor gara?
- ... Udal-Fototeka
- ... Merkataritza
- ... Beka-Deialdiak
- ... Argitalpenak
- ... Hitzarmenak
- ... Kultur ekitaldiak


:: Egin zaitez bazkide

:: Noaia! Hamaboskaria

:: Aurreko edizioak ikusi

:: Loturak

:: Albisteak



:: Ongi etorri noaia.com webgunera

- Albistegi berrietu astero

- Herriari eta herriko taldeei buruzko informazioa

- Agenda zure eskura

- Lan eskaintza eta eskariak gure webgunean

:: Agenda ::

IRAILAK 13 Ostirala
· Pilota Txapelketa,
22:00etatik aurrera
frontoian.

IRAILAK 20 Ostirala
· Bertso afaria Xabier
Silveira eta Mantxirekin.
21:00etan Gaztetxean.
Txartelak Txiriboga
tabernan hilaren 18-ra
arte.

IRAILAK 21 Larunbata
· Santuencako festak.
10:00etatik 13:00etara
futbolina eta ludoteka.
12:00etan toka
txapelketa.
13:00etan buruhaundiak.
16:00etatik 18:00etara
futbolina eta ludoteka.
16:00etan mus txapelketa.
18:30etan erne! aparra!!!

IRAILAK 22 Igandea
· Santuencako festak.
12:00etan herri kirolak.
14:30etan auzo bazkaria.

:: Lan eskaintzak
:: Lan eskaerak
:: Garajeak
:: Etxebizitzak
:: Bestelakoak

:: Hurrengo alea ::

Hemen

Noaia!!

Munduan

Usurbilgo Nekazal Produktuak

*Txit Baserria Gure Herriko
Ondare zaharra degunez*

*Baserritarra - Nekazaria
Natura Maitale denez*

*Zaindu ditzagun bizi bai dira
Beraiek sortutakoez*

*Bai barazkiz fruitu ta okelez
edo hauen barietatez*

*Gure Kultura ta elikaduran
onbehar ta osasunez*



Usurbilgo Udala

